

EUSKAL MENDIZALETASUNA

Aranzadi eta EMMOA Fundazioa, mendiaren historia zati bat bildu, kontserbatu, zaindu eta erakusteko bat eginda

Euskal mendizaletasuna babesteko». Hala bataiatu dute EMMOA Fundazioak (Euskal Mendizaletasunaren Museoa) eta Aranzadi Zientzia Elkarteak sinatu duten hitzarmena, iragan asteko asteartean, zientzia elkar-tearen egoitzan, eginiko agerraldi batean izenpetu zutena.

Jokin Otamendi Aranzadiren lehendakariordea, Txomin Uriarte EMMOA Fundazioaren lehendakaria eta Joseba Ugalde Euskal Mendizale Federazioko lehendakaria izan ziren hitzarmena izenpetu zutenak, baina agerraldian izan ziren, besteak beste, Gregorio Ariz, Pili Ganuza, Juanjo San Sebastian edota Alex Txikonen mailako hainbat euskal mendizale ere.

Hitzarmena, beraz, memoria historikoan espezializatua dagoen elkarte batek eta Euskal Mendizaleen Federazioaren babespean mendiak utzi duen ondare historikoa biltzeko asmoz jaio den fundazioak sinatu dute. Helburu nagusia 100 urtez baino

MENDIA / Aimar Etxeberria Korta

Harreman estua eta antzinakoa da euskal herritarrek mendiarekin dutena. Horrek, urteen poderioz, hainbat material sortzea eragin du: argazkiak, dokumentuak, kirol materiala... Bada material hori guztia jaso, kontserbatu, zaindu eta erakusteko bat egin dute Aranzadi Zientzia Elkarteak eta EMMOA Fundazioak.

gehiagoz alpinistek, eskalatzaileek, eskiatzaileek eta abarrek sortutako milaka argazki, dokumentu eta kirol material gorde eta herritarrek kontsultatu ahal izateko moduan jartzea litzateke. Hori, Aranzadik Donostiako Intxaurrondo auzoan izango duen egoitza berrian egin ahal izango litzateke.

Juantxo Agirre Aranzadi Zientzia elkarteak idazkari nagusiak hartu zuen hitza agerraldian. «Momentu historiko bat» bezala definitu zuen hitzarmenaren izenpetzea, eta akordioa zientzia elkarteak euskal mendizaletasunarekin duen konpromisoak bultzatu duela gaineratu zuen.

Zentzu horretan, gogoratu zuen Aranzadi Aralarko mendilerroan jaio zela, hots, betidanik izan dutela harremana mendiarekin, «honen ikerketa zientifikoarekin», zehatzago esateko.

Hitzarmenaren ondorioz, urteetan zehar mendia zapaldu duten belaunaldi ezberdinen «sekretu, usain, bizipen eta abarrak» jaso eta hurrengo belaunaldiei transmititzeko moduan izango dira, Agirreraren us-tez. Ildo horretan, memoria historikoa jasotzeari dagokionez urteetan pilatutako esperientzia guztia jarriko du EMMOaren esku Aranzadik: «Lagunduko dugu argazki zaharrak jasotzen, testigantzak hartzen, dokumentazioa gordetzen eta, hein batean, modu estandarizatu batean gordeko ditugu». Kontuak kontu, aurreratu zuen jada euskal mendizaletasunaren museoa osatzeko materialen bilketa lan horretan murgilduta daudela, baina ez dute aurreikusten epe laburrean museoa irekitzeko aukerarik. Aurrez aipatu egoitza berria –Intxaurrondon kokatuko dena– Es-

tatu espainiarraren jabegoko eraikin bat da eta Ministro Kontseiluaren sinadura baten esperoan dira espazioaren erabilera Aranzadi Zientzia Elkartearen esku izatera igaro dadin.

BIDE LUZE BATEN HASIERAN

Behin martxan, baina, mendiari loturiko ondasunei dagokionez museoa erreferentzia gune garantzitsu bilakatuko dela adieraztu zuen: «Hori da gure apustua. Mendiak ezagutzeaz batera, bertan izan diren mendizaleak ezagutzeko aukera ere emango digu museoak».

Antxon Iturriza mendi-aditu, kazetari eta EMMOako kideak hartu zuen hitza, berriz, fundazioaren izenean. Honen ibilbide laburra –mendizaletasunak sortutako ondarea kudeatu eta kontserbatzeaz arduratuko zen inolako erakunderik ez zegoela-eta, ekimen partikularrari esker eratu zuten fundazioa– azpimarratu zuen, baina pozik agertu zen Aranzadi bezalako elkarte batekin hitzarmen bat sinatu izanagatik. «Hainbat ate jo ditugu es-

MENDIAREN HISTORIAREN ZATI BAT, IRUDITAN



Euskal herritarrek duela urte askotatik dute lotura estua mendiarekin. Horrek, nolabait, eragin du urteen poderioz hainbat material sortzea, izan argazki, dokumentu edo kirol material. Hori horrela, eta ondare hori guztia desagertzeko arriskuan dagoela jabetuta, EMMOA Fundazioak euskal mendizaletasunaren historiarekin zerikusia duen ondare material oro bildu, kontserbatu, zaindu, dibulgatu eta erakusteko konpromisoa

hartu du. Horretan bidelagun izango du Aranzadi Zientzia Elkarteak.

Donazioen figuran oinarrituko da osatu asmo duten museoa, eta honakoak barnebilduko ditu: mendi gaietan berezitatuko liburutegi handi bat, dokumentu artxibategi bat, fototeka bat eta balio historiko berezia duten piezen gordetegi bat. Horrek guztiak osatuko du Mendi Dokumentazioaren Euskal Zentroa, «EMMOAren helburuen jomuga dena eta euskal gizartearen laguntzarekin errealitate bihurtzea espero duguna».